



**EBAZPENA**, 2019ko irailaren 11koa, Unibertsitate eta Ikerketa saiburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita 2019-2021 epealdian Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2019-2020 aldian Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia.

Hezkuntza saiburuaren 2018ko azaroaren 20ko Aginduak (EHAA, 234 zk., 2018ko abenduaren 5ekoa), 2019-2021 epealdian Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2019-2020 aldian Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko deialdia egiten du.

Hautapen Batzordeak aginduaren 10. eta 11. artikuluek ezarritakoaren arabera esleipen-proposamena egin zuen. Proposamen hori ikusita, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ebazpen honen 1.1 eranskinean ageri diren erakundeei bertan zehazten diren diru-laguntzak ematea, «Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuetarako laguntza-lerroko» 1. modalitateko ikerketa-proiektuak egiteko.

Bigarrena.- Ebazpen honen 2.1 eranskinean ageri diren erakundeei bertan zehazten diren diru-laguntzak ematea «Ezagutza Unibertsitatetik Enpresetara eramatea helburu duten ikerketa-proiektuetarako laguntza-lerroko» ikerketa-proiektuak egiteko.

Hirugarrena Laugarrena.- Ebazpen honen 1.2 eranskinean ageri diren «Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuetarako laguntza-lerroan» aurkeztutako eskaerak baztertzea bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Laugarrena.- Ebazpen honen 2.2 eranskinean ageri diren «Ezagutza Unibertsitatetik Enpresetara eramatea helburu duten ikerketa-proiektuetarako laguntza-lerroan» aurkeztutako eskaerak baztertzea bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Bosgarrena.- Ebazpen honen 1.3 eranskinean ageri diren «Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuetarako laguntza-lerroan» aurkeztutako eskaerak ezestea aurrekontu-kreditua agortzeagatik edo eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik.

#### AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsioa jarri ahal izango da Hezkuntza saiburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 16an.

  
  
 Unibertsitate eta Ikerketa saiburuordea  
 ADOLFO MORAIS EZQUERRO  
 HEZKUNTZA SAILA  
 DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN